



# 2017an Gipuzkoan elikagaiek transmititutako gaixotasunak eta zoonosiak

Memoria honetan, Gipuzkoako Epidemiologia Unitateak 2017an egindako jardueren informazio epidemiologikoa aurkezten da.

Hona hemen txostenaren ondorio nagusiak:



## AREAGOTU EGIN DIRA

### Campylobacter

SIM erakundeari campylobacter patogenoaren 992 isolamendu jakinarazi zitzaizkion, 2016an baino zertxobait gehiago (946).

Elikagairik kutsatuenak oilasko- eta indioilar-haragia izan dira.

Baliteke oilasko-haragia erabiltzeak, prestatzeak eta kontsumitzeak eragin izana gizakien campilobacteriosi kasuen % 20-30 artean; kasuen % 50-80 artean, berriz, oilaskoak izan dira patogenoaren gordailu.

### Norobirusa

2017an, DUOko Mikrobiologia Zerbitzuak 992 norobirus kasu jakinarazi zituen; zifra horrek gaintitu egiten ditu urte horretako salmonella, campylobacter eta rotavirus isolamenduak.

Aurten, 10 norobirus agerraldi jakinarazi dira (joan den urtean 5 izan ziren). **Gehienak gerontologia-zentroetan gertatu dira**; beste bat eskolako ikasleentzako aterpetxe batean, eta beste bat komunitatera hedatu zen (agerraldiei buruzko atalean azalduko da).

---

## MURRIZTU EGIN DIRA

### *E. coli* berotoxigenikoa

2017an, *E. coli* berotoxikogenikoaren 18 isolamendu jakinarazi zitzaizkion SIMi (dena dela, horietako kasu bat ez zegokion Gipuzkoari). Kasu guztietan *E. coli* O157 H7 identifikatu zen, kasu batean izan ezik (O111 zen).

Aurreko urtean 22 jakinarazpen egin ziren.



## Listeriosia

2017an, Gipuzkoako Epidemiologia Unitateari 8 listeriosi kasu jakinarazi zitzaizkion (7 DUOK jakinarazi zituen, eta 1, berriz AUOK).

## Salmonellosia

2017an, SIM erakundeari salmonellaren 214 isolamendu jakinarazi zitzaizkion, eta, hala, mantendu egin da azken 14 urteetako beheranzko joera.

# Elikagaien toxi-infekzio agerraldiak

2017an, ura edo elikagaiak jatorri izan zitzaizketen **8 agerraldi jakinarazi ziren**.

## KALTETUAK

339 pertsonari erasan zieten, eta guztira 4 pertsona ospitaleratu ziren.

Pertsona horien % 76i norobirusak eragindako komunitate-agerraldiak erasan zien.

## JATORRIA

6 agerraldi ostalaritzan izan ziren, eta beste 2, berriz, komunitate-arlokoak.

Komunitate-arloko 2 agerraldiak udalerrri berean izan ziren; kasu batean campylobacter izan zen, eta bestean, norobirusa.

## AGENTE ERAGILEA

8 agerraldietatik 6tan identifikatu zen. 3 agerralditan, agente eragilea norobirusa izan zen (kasu batzuetan, hornidura komuneko ura izan zen infekzioaren bitartekoa).

Kasu batean, agente eragilea toxina estafilokozikoa izan zen, eta elikagai eroalea, berriz, gazta.

Komunitateko agerraldi batean, *Campylobacter jejuni* izan zen agente eragilea, eta susmatzen da elikagai eroalea oilasko-haragia izan zela.

Bestalde, jatetxe batean onddo toxikoa kontsumitzeak beste agerraldi bat eragin zuen.

## Zoonosiak

2017an, Q sukarraren 23 kasu jakinarazi ziren Gipuzkoan, hau da, joan den urtean baino 12 gutxiago. Beraz, tasa gordina 100.000 biztanleko 3,24koa izan zen; horietatik 13 gizonak ziren, eta 10, berriz, emakumeak (22 eta 73 urte artean). Kopuru eta tasarik handiena 35-64 urtekoen artean egon zen.